



IKASTAROA: Plazera, desioa eta jolasa (2024-02)

Zer da plazera? Zer da desioa? Eta zergatik landu jolasen bitartez? Tailer teoriko esperientzial honetan plazera eta erotika zer diren eta haien arteko ezberdintasunak azalduko ditugu. Baita gure bizitzetan zer leku betetzen duten ere. Plazera eta erotika jolasaren bitartez landuko ditugu, alde batetik, ondo pasatzeko, eta bestetik, gorputzetik egiteko. Izan ere, gorputzaren bitartez lortzen dugu plazera.

Helburuak: sexualitatearen eta haren bizipenaren kontzeptuaz hausnartzea; konfiantzazko, errespetuzko eta entzute aktiboko espazio seguruak sortzea; plazera, desioa eta zaugarritasunaren inguruko kontzeptuetara hurbiltzea; jolasaren bitartez sexualitatearen dimentsioa osatzea eta gure sexualitate propioaz jabetzea.

Edukiak: sexualitatearen definizioa eta markoa azaldu, plazera zer da, plazera eta eguneroko bizitza, erotika zer da, erotika eta eguneroko bizitza, zaugarritasuna zer da eta desioa, limiteak eta beharrianak.

Tramitzailea: Eibarko Udaleko Berdintasun Zerbitzua, Emakumearen Mahaiaren lankidetzaz.

Nork emango du: Iraide Gulin Garcia.

Hartzaileak: 18 urtetik gorako emakume interesatu guztiak.

Non eta noiz: Andretxea. 2024ko azaroak 9 eta 16.

Ordutegia: 10:00etatik 14:00etara.

Ikastarora ekarri behar den materiala: Arropa eroso.

Ikastaroaren prezioa:

- Eibarren erroldatutako emakumeentzat **8 €**.
- Eibarren erroldatuta ez dauden emakumeentzat **10 €**.

Ikastaroaren ordainketa: matrikula ordainketa bakar batean kobratuko da, erreziboa helbideratuta.

Ikasle kopurua: gutxienez 8 ikasle, eta gehienez 10 ikasle.

Ikastaroaren hizkuntza: euskara.

Aurrematrikula: ikastaroan izena emateko aurrematrikula egin beharko da **2024ko irailaren 1etik 25era (biak barne)**.

Aurrematrikula egiteko **formulario bat bete beharko da elektronikoki ondorengo estekan:**

<https://formularioak.eibar.eus/eu/plazera2024-02>



Kudeaketa arauak:

Matrikularako izena eman duten pertsonen kopurua ez bada heltzen ikastaroa emateko ezarritako gutxieneko ikasle-kopurura, ez da ikastarorik egingo. Abisua udalaren web orrian emango da (www.eibar.eus), irailaren 27an.

Matrikularako izena eman duten pertsonen kopuruak ezarritako gutxieneko ikasle-kopurua gainditzen bada eta ezarritako gehieneko ikasle-kopurutik gorakoa ez bada, matrikula guztiak onartuko dira. Onartu diren pertsonen izenekin zerrenda bat egingo da. Zerrenda hori PEGORAn eta udalaren webgunean (www.eibar.eus) egongo da irailaren 27tik aurrera.

Matrikularako izena eman dutenen kopurua ezarritako gehieneko ikasle-kopurutik gorakoa bada, ikasleen aukeraketa zozketa bidez egingo da. Zozketa Gizartekintzan (Berdintasun Zerbitzua) egingo da. Hona hemen zozketa-eguna eta ordua: Eguna: irailaren 27an. Ordua: 13:00. Zozketa era honetan egiten da:

- Zozketa egin aurretik ikastarorako izena eman duten pertsona guztien zerrenda bat egiten da alfabetoaren arabera ordenatuta; bakoitzari zenbaki bat ematen zaio.
- Zaku baten sartzen dira zenbaki guztiak eta zenbaki bakar bat ateratzen da.
- Aukeratzen diren pertsonak zenbaki horretatik aurrerako zenbakiak dituztenak izaten dira, ikastaroa emateko dauden leku guztiak bete arte.

Onartzen diren pertsonen izenekin zerrenda bat egingo da. Zerrenda hori PEGORAn eta udalaren webgunean (www.eibar.eus) egongo da irailaren 27tik aurrera.

Onartzen diren pertsonen zerrenda argitara ematen den unean sortzen da matrikularen zenbatekoa ordaintzeko obligazioa. Ikastaroa utzi edo ikastaroan baja ematen duen pertsonak ez du izango matrikularen zati proportzionala jasotzeko eskubiderik.

Oharrak:

Aurre-inskripzioen onarpenaren abisua jaso ondoren, behin betiko inskripzioa egin behar da, eta ondoren adierazten den dokumentazioa ikastaroa egiten den lehen egunean aurkeztu behar da:

- *Plazera, desioa eta jolasa* tailerrean izena emateko inprimakia behar bezala beteta eta sinatuta.

Informazio gehiago: 688 85 34 40 telefonoan.